

South Side Taldeak euskaldunak izateagatik pairatu duten errepresioa salatu dute

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 30/01/2024

Azkeneko partiduan Guardia Zibilak Real Unioneke hainbat hintxa identifikatu zituen eta hauetako bat "esto te pasa por ser vasco" esanez mehatxatu zuen.

Pasaden larunbatean Tarazona-Real Union partiduan hainbat hintxa desplazatu ziren Irunetik bere taldea animatzeko, hauen artean South Side Taldea. Azkeneko hauek salatu dutenez lehen momentutik Guardia Zibilaren jazarpena jasan behar izan zuten. Inolako arrazoirik gabeko identifikazioak, mehatxuak eta intimidazioa eman ziren, besteak beste. Guztira 7 kide izan ziren identifikatuta, "komunean agertutako pegatinak" eta "epailearen segurtasuna" bezalako arrazoiak zirela eta. Gainera, kide bat intimidatu zuen poliziak "esto te pasa por vasco" eta mehatxu artean. South Side Taldeak "euskaldunak izate hutsagatik zenbait lekutan jasan behar ditugun jarrera errepresiboak" salatu ditu, eta bestetik "taldea animatzeko eskubidea" aldarrikatu dute komunikatu baten bidez.

<https://eh.lahaine.org/south-side-taldeak-euskaldunak-izateagatik>